

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK

2013ko azaroaren 19an aurkeztuko du

# Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak IV



GUGGENHEIM BILBAO

# *Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak IV*

■ **Irekiera: 2013ko azaroaren 19an**

■ **Komisarioa: Petra Joos**

■ **Aretoa: 105**

- Erakusketa hau 2010ean hasitako ziklo baten azken erakusketa da. Erakusketek gaika aurkeztu dituzte Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak. Egun, 73 artistaren 128 sorkuntza jasotzen dira funts horietan.
- Gaur eguneko bi sortzaile belaunaldiren lanak daude, guztiak ere errealitateaz haraindi joateko artegintza baliatzen dute. Honakoak dira artistok: Elsie Ansareo, Manu Arregui, Juan Manuel Ballester, Prudencio Irazabal, Darío Urzay eta Juan Uslé

[\*Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak IV\*](#) aurkezten du Museoak. Erakusketa hau 2010ean hasitako ziklo baten laugarren erakusketa da (2014ko abuztuaren 31n amaituko da zikloa). Zikloak bildumako artelanak testuinguru batean kokatzea du xede, eta, era berean, ikusleari funts horien ikuspegi zabala erakustea.

Erakusketaren komisarioa Petra Joos da, Museoko Jardueren Zuzendaria. Egungo artisten bi belaunaldiren 11 lan daude ikusgai. Elsie Ansareok, Manu Arreguik, Juan Manuel Ballesterrek, Prudencio Irazabalek, Darío Urzayk eta Juan Uslék errealitatearen eraldaketa aztertzen dute askotariko ikuspegietatik, eta, jardun horretan, ezezagunean eta esperimentazioan murgiltzen dira.

“Uste dut errealitatea gainezka egitea, ausardia dela. Irudimenezko gauzak errealitateari dagozkio; gertatu egiten dira”.

Adonis [Ali Ahmad Said Esber]

Erakusketa honetako artista horiek presentzia eta absentzia ikertzen dute eta errealitatea eraldatzen dute. Errealitate horren barruan daude, giza harremanak, artearen historia eta ikuspegi kosmikoak eta mikrokosmikoak, besteak beste. Artistak hainbat modutan hurreratzen dira errealitatera, baina beti dute xede ezezagunean murgiltzea, errebelazio bat bizitzea. Hartara, errealitatea “aldeztatik den” zerbait izateari uzten dio eta esperientzia berezia da; arteak zerizan erretorikoa galtzen du orduan eta guztiz lotzen zaio izatearen, existentziaren, osotasunari.

Bi atal bereiz daitezke erakusketan: batean lan figuratiboak daude, itxura teatrala dutenak, eta bestean abstraktuak.

## Gelditutako denbora, nia eta bestea

**Elsie Ansareok** (Mexiko Hiria, 1979) agertokiaren eta ikuslearen inguruko hausnarketa egiten du barroko itxurako irudi teatralen bidez; ikuslearentzako irudi aztoragarriak egiten ditu. *Flâneuses-en dantza* (*La danse des flâneuses*, 2007) lana argazki-panelez osatutako horma-irudi handi bat da. Bertako pertsonaiak argiztazalen ingurune teatral batean daude, eta, irudi panoramikoak denez, pertsonaiok elkarren artean begiradak trukatzeko dituzte. Antzezenaren zentzua zalantzan jartzen du irudiak. Nolanahi ere, gelditasuna dago: lanaren izenburuak iradokitzen duen dinamismoarekin kontrastea egiten du.

Ansareok zuri-beltzean egin zuen lan hau, beste asko bezala, eta horrek denboran gelditutako irudiaren sentsazioa indartzen du. Argazkigintzaren bidez interes estetikoak lantzen ditu artistak eta modu poetikoan aztertzen ditu hainbat kontzeptu, hala nola, irudikapena, identitatea, besteekiko harremanak eta oroimena.

**Manu Arreguiaren** (Santander, 1970) *Gutziz xarmagarria* (*Irresistiblemente bonito*) lanaren ardatz nagusia Vanesa Jiménez da, gaixotasun larria duen neska bat, "kristalezko hezurak dituen neska" deitu ohi izan zaiona. Vanesa ezagun egin zen testigantzak biltzen zituzten telebistako programa batzuei esker; horietan, norberaren burua hobetzeko nahiaren adibidetzat aurkeztu zuten. Lana bereizmen handiko aurrez aurre ipinitako bi bideo-proiektzioak osatzen dute. Batak benetako Vanesaren grabazioa erakusten du; bestea haren irudi birtual bat da, isla baten modukoa. Irudi erreala eta birtuala aurrez aurre jartzerakoan Arregui benetako pertsonaia bat haren kopia mediatizatu bihurtzeko mekanismoak ikertu nahi izan ditu.

Arreguiaren *Andre itxurako keinuarekin* (*Con gesto afeminado*, 2011) artistaren azken lanetako bat da. Bideo-muntaketa batez eta eskultura-pieza batez osatutako instalazioa da. Lan hau egiteko *Spring Night* (1935) balletari buruzko filmetik abiatu da. Jatorrizko material horri ezaugarri politikoak txertatu dizkio, eta horrela norbanakoaren eta gizartearen arteko bat ez etortzea eta maskulinitasunaren agindu sexistak ikertu ditu. Halaber, txat leiho bat gainezarri du filmaren erreproduzio lineala eteteko. Leiho horretan agerian utzi ditu produkzioaren xehetasunak eta irudikapen-prozesu orori atxiki zaion artifizialtasuna azaleratzen du, eta bere sortze-lana gaur egungo eremu teknologikoaren testuinguruan kokatzen du.

## Espazio hutsaren poetika

**José Manuel Ballester**-rek (Madril, 1960) denbora etetea bilatzen du, unean uneko momentua mugatzeko argazkigintzaren bidez. Horretarako, ikuslea espazio hutsetan murgiltzen du, eta bertan beharko luketen pertsonaiak arrastoen eta islen bidez erretratatzeko. Norbanakoaren bakardadea eta mundu modernoaren kontraesanak aztertzen ditu formatu handiko lanetan, eta ikuslea errealitatearen metamorfosian parte hartzera gonbidatzen du.

Artistak hutsik dagoen espazioaren poetika bat bilatzen du, eta horrek *Ezkutatutako txokoak* saila egitera eramaten du. Digitalki eraldatzen ditu artearen historiako pintura gailenak, eta, ondorioz, maisulanotan hutsune artegarriak sortzen ditu. Erakusgai daude lehen aldiz artistak Museoari 2011n dohaintzan emandako sail horretako hiru lanak.

*Maiatzaren 3a* (*3 de mayo*, 2008) lanean Ballesterrek Francisco de Goyaren *1808ko maiatzaren 3ko fusilamenduak* (1814) lana berraztertzen du. Ballesterrek ez du gizakirik utzi; gertakizun horren arrasto bakarra dago: zoruari ikus daitekeen odol-isuria, lanpara baten zeharkako argiaren bidez dramatikoki argiztatua. Hala ere, erraz ezagut daiteke Goyak historiako gertakari hori irudikatzeke baliatutako giroa dela.

Velazquezen lanik famatuenetakoa da *Meninak*; konposizio konplexua dauka, eta perspektibaren erabilera miresgarrian, argiarekin eginiko joko bikainean eta atmosferaren irudikatzean oinarritzen da. Ballesterrek

pintura hori hartzen du oinarri *Errege-erreginaren jauregia (Palacio Real, 2009)* lana egiteko. Pintura-eremuaren sakontasuna azpimarratu du, pertsonaiarik ez baitago, eta horrela bideratu du ikuslearen arreta paretako artelanetara, argira eta konposizioa.

Théodore Géricaulten *La Méduseen almadia* lanak, Frantziako erromantizismoaren ikurrak, 1816an Mauritaniako kostaldetik gertu jazoriko Frantziako ontzi baten urperatzea irudikatzen du. Ehun lagunetik gora ur gainean egon ziren hala nola egindako almadi batean, zenbait egunez, eta hamabost besterik ez ziren bizirik irten. Ballesterren argazki-berrazterketak baltsaren hondarrak azaltzen ditu, jenderik gabe, bizirik irten zirenen erreskatea eta gero. Hildakoen hilotzak desagertuta zeuden ordurako ere. Francisco de Goyaren *1808ko maiatzaren 3ko fusilamenduak* lanaren inguruan egindako berraztertzearekin gertatzen den antzera, Ballesterren *La Méduseen almediak* lanak jendearen irudimenean bizirik gordetako historia-gertakarietako bat gogoratzen digu.

## Abstrakzioetik begira

*Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak IV* erakusketa abstrakzioaren ikuspegitik errealitatera hurbiltzen diren artisten lanak ditu ondoren, hauenak, hain zuzen: Prudencio Irazabal, Darío Urzay eta Juan Uslé.

**Prudencio Irazabal**-en lanak (Larrazubi, 1954) itxura batean errazak dira, bat-batean egindakoak, baina artearen historiako erreferentzia ugari daude: pinturaren lengoaiaren jakintza teknikaren eta formaren azterketaren bidez aditzera ematen du.

Geruzen gainezarpenak Irazabalen interesak ezagutzeko hainbat giltza eskaintzen dizkigu. Alde batetik, erabiltzen duen baliabidearekiko nolabaiteko sinesgaiztasuna erakusten du, eta, horrek margolan baten lagina mikroskopioz behatzera eta pinturan bertan lanketa diagramatikoa egitera bultzatzen du. Baina materia pazientziaz eta zorrotasunez aztertzearen bidez, esanguratsua da ere materiagabea den horretara (denbora, espiritua, kontzeptu abstraktuak) iristeko konfiantza.

*Titulurik gabea #767* (1996) obrak kolore gorri biziko lau panelek osatzen dute, tamaina berekoak guztiak, eta gutxi gorabehera gizakiaren eskala dutenak. Panelen artean tarte bat dago, eta, era horretara, lau elementuen artean ere agerian geratzen da panelen geruzen haragikoitasuna. Horrela, multzo osoaren tamainak iradoki zezakeen itxurazko dimentsio heroikotik baino, irudi bateratua eskaintzeko ongi kokatutako pertsonaia desberdinen arteko elkarriketa atseginetik hurbilago dago margolana.

**Darío Urzay**ren (Bilbo, 1958) *Frakzioa (Mikrobertsoa) batean* [*En una (Microverso) fracción, 1997*] lanaren bi bertsio daude ikusgai lehenbiziko aldiz: *Frakzioa (Mikrobertsoa I) batean* (1997) Museoak erosi zuen 1997an eta bigarrena artistak eman du dohaintzan 2013an.

Urzayren hitzetan, “mikromundutik makromundura joateko bidaia zorbiagarri bat; zerbait galaktikoa, kosmikoa dirudi urrunetik begiratuz gero; aitzitik, hurbiltzen zaren heinean, aldatu egiten da eta zainen antzeko zerbait ikus dezakezu”. Biak 1991ean hasitako *Camera-strokes* seriekoak dira. Artistaren esanetan, serie horretako argazkietan “kameraren bidez espresionismo abstraktuaren keinuak, margolariaren brotxa mugimendua, imitatzean datza; erabilitako ‘materia’ argia da”. [Darío Urzay, *Camera-strokes*, Photomuseum, Zarautz, 1994].

**Juan Uslé**-k (Santander, 1954) errealitatea —berak ulertzen duen modu berezian— islatzen dituzten espazio autonomoak sortzen ditu. 1990ko hamarkadaren hasieran, figurazioa utzi zuen artistak eta analitikoagoak eta kontzeptualagoak ziren margolan abstraktuak egiten hasi zen.

Usléren lanek artistaren prozesu intelektualak eta emozionalak jasotzen dituzte. *Errebelatu zenuela egin nuen amets XI (Airport)* [*Soñé que revelabas XI (Airport)*, 2002] artistak 1997an hasitako margolan-sail bateko hamaikagarrena da. Sailak ezaugarri ditu metodikoki errepikatzen diren pintura beltzeko pintzelkada bertikalen zerrenda horizontalak. Ilara bakoitza tonu argietatik ilunetara aldatuz, mugimendu mantso edo taupakariaren sentsazioa sortzen du. Lerro horiek egiteko pintzelkaden errepikapen mekanikoak agerian uzten du artistak prozesu sistematikoan interesa duela; dena dela, pintzelkada gorputzaren eta jardun fisikoaren arrastoa ere bada; artistak horrela azaldu du “Lan beltzak tailerrear nagoela nola jokutzen dudanaren adierazpena dira. Errepikapena bilatzen du, automatikotasuna. Horrexegatik dira horren antzekoak”. Lan honen aurkezpena osatzeko, serieko azken lana ere ikusgai dago: *Errebelatu zenuela egin nuen amets XI (Kongo)* [*Soñé que revelabas (Congo)*, 2013].

*Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak IV* aipatutako zikloa ixten du. Erakusgai jarri dira Bildumako lan garrantzitsuak, artearen historiaren mugimendu gailenen erakusle direnak, aurreko mendearen erdialdetik gaur egunera artekoak.

## Gune didaktikoa

Erakusketaren osagarri da **Zero Espazioa** didaktika gunea. Museoko sarreraren ondoan dago, txarteldegia alboan, eta bertan bisitariak Guggenheim Bilbao Bilduman sakondu dezake ikus-entzunezkoen, katalogoen, liburuen eta beste euskarri batzuen bidez.

### Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa  
Marketing eta Komunikazio Arloa  
Tel: +34 944359008  
[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Prentsa irudiak:  
***Guggenheim Bilbao Museoko Bildumaren aukeraketak IV***  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

**1. Elsie Ansareo** (Mexiko Hiria, 1979)

*Flâneuses-en dantza (La danse des flâneuses)*, 2007

Zuri-beltzeko 12 argazki. Lambda inprimaketa

200 x 180 cm bakoitza

Edizioa: 3 aletik 1. + AP

Guggenheim Bilbao Museoa



**2. Manu Arregui** (Santander, 1970)


*Gutziz xarmagarria (Irresistiblementemente bonito)*, 2007

Bi kanaleko HD bideo proiektzioa, soinu-duna

Iraupena: 3 min. 27 seg. gutxi gorabehera

Ale bakarra

Guggenheim Bilbao Museoa



**3. Manu Arregui** (Santander, 1970)

*Andre itxurako keinuarekin (Con gesto afeminado)*, 2011

Bereizmen handiko bideoa 10 min 15s

Epoxi erretxina esmaltez estalia, dentsitate handiko poliestireno eta metal gainean

82 x 152 x 74 cm.

Artistaren bilduma



**4. José Manuel Ballester** (Madril, 1960)

*La Médusen almadia (La balsa de la Medusa)*, 2010

Inprimatutako argazkia mihise gainean

491 x 717 cm

Ale bakarra

Guggenheim Bilbao Museoa



**5. José Manuel Ballester** (Madril, 1960)

*Maiatzaren 3a (3 de mayo)*, 2008

Inprimatutako argazkia mihise gainean

268 x 347 cm

Edizioa: 2 aletik 1. + AP.



Guggenheim Bilbao Museoa

6. **José Manuel Ballester** (Madril, 1960)  
*Errege-erreginaren jauregia (Palacio Real)*, 2009  
Inprimatutako argazkia mihise gainean  
276 x 318,4 cm  
Edizioa: 2 aletik 1. + AP.  
Guggenheim Bilbao Museoa



7. **Prudencio Irazabal** (Larrazubi, Araba, 1954)  
*Titulurik gabea 767. zk.*, 1996  
Akrilikoa oihal gainean zurezko panelen gainean  
211 x 346 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa




8. **Darío Urzay** (Bilbo, 1958)  
*Frakzioa (Mikrobertsoa I) batean [En una (Microverso I) fracción]*, 1997  
Baliabide anitzak zur gainean  
170 x 850 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa



9. **Darío Urzay** (Bilbo, 1958)  
*Frakzioa (Mikrobertsoa II) batean [En una (Microverso II) fracción]*, 1997  
Baliabide anitzak zur gainean  
170 x 850 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa



10. **Juan Uslé** (Santander, 1954)  
*Errebelatu zenuela egin nuen amets XI (Airport) [Soñé que revelabas XI (Airport)]*, 2002  
Biniloa, sakabangatzea eta pigmentuak mihise gainean  
274 x 203 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa



11. **Juan Uslé** (Santander, 1954)  
*Errebelatu zenuela egin nuen amets XI (Kongo) [Soñé que revelabas XI (Congo)]*, 2013  
Biniloa, sakabangatzea eta pigmentuak mihise gainean  
274,5 x 203 cm  
Guggenheim Bilbao Museoa

